

Kaixo neska mutilak!

Urtero bezala, **ESKERRIK ASKO!!** egin duzuen lanagatik eta hori aurkeztera udaletxera etortzeagatik!  
Guretzat oso interesagarria eta atsegina izaten da zuekin jasangarritasun gaiak partekatzea!



Aurten aztertu duzuen Klima-aldaketa gaia kezkatzen gaitu eta urtero bezala aurkeztu dituzuen diagnostikoa, konpromisoak eta proposamenak arretaz irakurri ditugu.

Hartu dituzuen **KONPROMISOAK** oso egokiak ikusten ditugu eta bat datoz Udalak bultzatzen dituenekin. Horregatik ahalegintxo bat eskatzen dizuegu eguneroko bizitzan betetzeko!



Bestalde egin dizkiguzuen **LEHENTASUNEZKO PROPOSAMEN**ei dagokienez ohartxo hauek egin nahi dizkizuegu:

**1. “CO2-a xurgatzen duten Laubiden dagoen moduko zorua leku gehiagotan jartzea eta berdegune gehiago jartzea”**

Kontutan hartuko dugu zuen proposamena gehien bat trafiko ugari dagoen tokietan.

Argitzearren: CO2-a xurgatzen duen zorua Kale Nagusikoa da, ez Laubidekoa. Eta honen harira jakin ezazue aurten, Kale Nagusiaren azken fasea egingo dugula ( 1.776 m<sup>2</sup>).



**2. “Energiaren inguruan hitzaldi bat ematea eta hondakin gutxiago sortzeko eta birziklapena hobetzeko kanpainak egitea”**

Aztertuko dugu energiaren inguruan edota Klima-aldaketaren inguruan hitzaldiren bat antolatzea.

Eta noski jarraituko dugula hondakinei buruzko kanpainak egiten.

Aurten Sasietarekin batera aurreikusten dugu edukiontzi horia hobeto erabiltzeko kanpainaren bat egitea. Zuek ere parte hartzea espero dugu!

**3. Garraio publikoaren ordutegia eta irismena zabaltzea.**

Udala telefono mugikorrerako aplikazio bat prestatzen ari da herritarrok zenbait informazio eskurago edukitzeko.

Horien artean garraio publikoaren atal bat egongo da.

Ea praktikoa iruditzen zaizuen!!

Iaz Junetorriren zerbitzua indartu egin zen: larunbat eta igandeetan 17:00etatik 21:00etara zerbitzu berria jarri zen eta baita abuztuko 13 egunetan.

Bestalde, alkateak tren zerbitzua indartzeko eskaera egin du: geltokia hobetzeko eta zerbitzua sarriago edukitzeko hain zuzen ere. Erantzunaren berri emango dizuegu.

Bestelako lau proposamenak ere aztertuko ditugu eta horren berri emango dizuegu.



Oso atsegina izan zen, halaber, maiatzaren 18an, zenbait irakasle eta Batxillergoko ikasle talde bat arratsaldeko herritarren Foroan parte hartu izana.

Hortik ere zenbait ideia sortu ziren eta gauzatuko ditugu:

- Zuek hartutako konpromisoak legazpiarrei zabaltzeko, whatsapppe eta sare sozialen bitartez zabaltzeko **bideo motza** egin dugu: <http://www.legazpi.eus/files/Agenda21/EA21-IkasleenKonpromisoak-wtsp.mp4>  
Eskerrik asko ere bideoa egiten laguntzeagatik!!!  
Zure ezagunei eta whatsapp taldeetara bidali mesedez!  
Ea denon artean zabaltzen dugun!
- Kartelak jartzeko prestatuta dauden herriko paneletan ere **kartelen bitartez** zuen konpromisoak eta Udalari egindako eskaerak zabalduko ditugu.
- Ekainaren 16an goizean plazan egongo den **Urolamet** ekitaldian zuek egindako lana ere zabalduko dugu. Klima-aldaketaren inguruan herritarrak sentikortzeko ekitaldi bat da Urolamet.

Aipatu bestalde, hilabete honetan Udalak bukatutzat emango duela prestatzen ari den **LEGAZPI KLIMA 2030** estrategia. Legazpi Garapen Iraunkortasunerantz aurreratzeko eta Klima-aldaketa murriztu eta egokitzeko plan berria da hau.

**Eta bukatzeko berriz ere ESKERRIK ASKO!!**

Laster udako oporrak izango dituzue! Merezitako atsedena!!!

Aprobetxatu tope topean lagunekin egoteko, kalean jolasteko ...

... eta ez ahaztu oporretan ere ingurumena zaintzeko behar dugula!!!

LURRALDE TASUNEN KONTROLERAKO ZINEGOTZIA,

Izenp.: Eric Galvez



ALKATEA,

Izenp.: Koldobike Olabide